


Bizkaitarrei **B**izkaieraz




370n. zenbakia • 2011 Loraila



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Kolon eta Bizkaitarrak



**Nafarroa
1200. urtea III**



**Euskalerria
edo Euskadi**

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2010-2011 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 43. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Horas: Mañana, tarde y noche

Ordaña: 140 €

Curso completo: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2

Colón de Larreategi, 14-2

urrutizkiña 94 423 53 22

Teléfono 94 423 53 22

Bilbao

Bilbao

Asiera: urriaren 11an

Comienzo: 11 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

KOLON ETA BIZKAITARRAK



Martin Alonso Pinzon, Kolonen laguntzaillea

Sasoi baten euskaldun guztiai esaten jaken “bizkaitarrak”, baiña guk, erri txiki bat izanik, siñistu-eziñekoa da zelako ikutua izan dogun munduko jazokizunik aundienetan: Orain esango dogun lez, Amerikak aurkitzean, edo bertako jakintza indartzen urrengo urteetan (eundak millak dira Ameriketean euskal abizenak) edo munduari lenengo bira emotean, Elkano getaria-rra buru zala: “Tu primus me circumdedisti” izan zan Karlos Erregearen esaldia, lurraren irudiaren gaiñean, Elkanori emona.

Aztertu daigun gaur zelakoak izan ziran Kolonen eta euskaldunen arteko artu-emonak, batez be Amerikak aurkitzeko egin zan lenengo osteran.

1.942n. urteko urrillaren 6n. eguna zan garrantzi aundikoa Kolonentzat ta “Bizkaia aberri zintzoaren semeentzat”

(Kolonen berbak).

Kolonek urten ebanean esan eutsen zenbat legua ibilli bearko eben lurra ikusi-orduko eta bizkaitarrak ondo zenbatzen ebezan legua orreik eta ba-ekien esandako legua guztiak eginda egozala. Gaiñera konturatu ziran Kolon maltzurra zala eta berba egiten eutsen bakoitzean zortzi edo amar legua kentzen ebazala. Bizkaitarrak ba-ekien emondako berbearen leguak eginda egozala.

Kolonen aurka matxinada egitea asmatu eben eta gertu egozan Kolon itxasora botateko be. Ortxe amaituko zan Ameriketen billatze ori.

Eskerrak Martin Alonso Pinzoneri bakeak egiteko bitarteko lez sartu zalako berau eta beronegaz eukazan beste ontzi bietako itxas-gizonak. Ordukoz ez eban aurrera egin matxinada orrek.

Egunak aurrera joiazan eta Pinzon eta onen lagunak be matxinada egiteko gertu agertu ziran illearen 10n. egunean.

Orretan egozala, zorionez, ikusi zan lenengoz lurra sartaldean.

Kolonek gorrotoa artu eutsen euskaldunai gauze bigaitik: bera baiño itxaskari obeak eta berbako gizonak ziralako, bera baiño zintzoagoak.

Ameriketako lurretik urrean egozala, ontziko lema-zaiña zan Txantxu (Juanxu) lekeitiarrak lemearen ardurea sukaldari-lagunari emon eutsan eta onek lan ori txarto egin ebalako “Santa Maria” ontzia ondatu egin zan. Barriro biztu zan Kolonen gorrotoa.

Itxas-ontzi onen ondakiñakaz gertatu eben “Fuerte de Navidad” eritxona eta toki itxi orretan geratu ziran itxaskari batzuk, geienak bizkaitarrak, Kolonek Españara ekarri nai izan ez ebazalako, matxin-zaleak ziralakotan.

“Fuerte de Navidad” orretan egozanak gogor jokatzen asi ziran inditarren aurka. Beste toki baten agertzen dan lez, urre-zaleak ziran eta inditarrak batu, euren ume bat eskuan artu azata-makilleagaz zemaia egiten eutsoela eta urre, zidar eta bitxi guztiak ekarteko agindua emon eutsen inditarrai, umea iltea nai ez baeben. Or agertzen da Españatarren urre-zalekeria. Baiña euskaldunak be


orrelan jokatu ete eben? Iturri bi dira eta ez da gauza ziurra.

Urre, zidar eta bitxi guztiak emon ebezanean, gau baten inguruko inditar guztiak alkartu ziran eta “Fuerte de Navidad” areri eraso egin eutsoen eta bertan aurkitu ebezan espñatar guztiak erail ebezan.

Kolon Espñatik bariro eldu zanean, ez eban iñor be aurkitu bizirik berak an itzi ebazenetatik. Asko poztuko zan bere aurka agertzen ziran bizkaiatarak geiago ikusiko ez ebazalako.

† OLAZARtar Martinek.





Thomas Merton, Kentucky-ko monjea

1968. urtean il zen, Bangkok-en, 53 urte zituela. Urte berean izan ziren erailak Martin Luther King eta Robert Kennedy. XX. mendeko monje bezala bere bizitza eta lana "gizarteari eskainitako amodiozko gutun bat" bezala ar daiteke. Erlijioan, politikan eta kulturean eragin zabalekoa izatera eldu zen monjea.

Bere eraginaren adibide batzuk:

* New York Times aldizkariak Lutero geroztik monje baliotsuena bezala azaldu zuen.

* Apaiz anglikano baten esanetan giza barneko eta munduko bizitzaren arteko bakegile baliotsua.

* Askoren ustez benetako zubia luzatu zion Kontzilio aurreko Elizari etorkizunera begira jarritz.

Mertonek berak dio zeren bila aritu zen: "Antzematen dudan egiaren berri beti eman, nolanaikoa bada ere, eta ogeigarren mende onetakobizitzan Kristoren argitik ala orretatik kanpo aurkitutakoaren lekuko izatea".

Eta beste testu batean dio: "Dagokigun zeregin garrantzitsuena gure garaiko gizon-emakumeekin

beren basamortu espiritualean topo egitea da, eta oraingoz ulergaitzak zaizkien galdera berriak egiten lagundu".

Mertonen gurasoak artistak izanik, beraiengandik artea eta naturarekiko sentiberatasuna jaso zuen. Sei urte zituenean galdu zuen ama, eta bere aitarekin Frantzia eta Ingalaterran ibili zen. Cambridgen frantsesa eta italiar izkuntzak ikasi zituen. Aita Londresen buruko tumore batez il zenean Mertonek 18 urte zituen. Ogei urte betetzean Estatu Batuetara itzuli zen, Columbiako unibertsitatean ikasketak egiteko.

Gaztedi komunistarekin arremantetan ibili zen. Monje hindu bat izan zen kristau erlijioaren aberastasunaz oartarazi ziona. Ogeita iru urterekin, gaztaro mugitu baten erdian, Eliza Katolikoan batiatua izatea eskatu zuen, eta poeta bati buruzko doktoretza ikasketak asi zituen. Urte orretan Kubarara bidaiatu, eta an bizipen erlijioso sakona izan zuen, autobiografian kontatzen duenez, nobiziadorra joateko kezka sortu zitzaiola. Frantziskotarrek

ez zuten onartu, sasiko seme bat izateagatik. Getsemaniko abadian aldi batez gogoeta egin ondoren, Trapenseetan nobizio bezala onartu zuten. Or aurkitu zuen bere egoitza espirituala, ainbeste bear zuen "barkamen elkartea".

Monasterioan aldi auek bizi izan zituen: nobiziodoa, botoak, apaiz egitea, sarberrien ezitzaile, nobizioen zuzendari (11 urte), eta bakarraldia (monasterioaren esparru barnean, ia kilometro batera zegoen ermita batean bakartuta bizitzeko baimena eskatu zuen). Orduan idatzi zuen Basamortuko Jakinduria; monasterioko bizitzan ekintzari erabat emateari egon eta barne bizitza uztearen arriskuetaz mintzo dena. Iru urte geroago bakarleku izango diren ermita berriak autatzeko eskatzen diote eta Nueva Mexiko, Kalifornia eta Alaskara bidaiatzen du. Urte orretan bertan Asian beneditar eta zistertar monjek duten topaketa batera doa Bangkok-era. An aizegailu baten korronte elektrikoak eraginda il zen.

II. Mundu Gerratea ostean, Amerikako monasterioetan bokazio berri ugari sartzen da. Ezinezko zen kopuru guzti ura bear bezala autatu eta ezitzea. Monasterioak zaratatsu bilakatu ziren, ekintza eta lanak geiagotuz. Mertonek monasterioen oiko balioen galera sumatu, eta gizarte amerikarraren ametsak sartzen ari direla oartzten da. Berak ongi aski jarraitzen du gizartearen nondik norakoa, antzinako ikaskide batzuekin arremantetan jarraitzen duelako, eta profeta bakartiaren kezka eta ezinegona sentitzen asten da. 1960. urtean monasterioko esparruan zegoen ermita batean bakartzeko baimena eskatu, eta andik lan emankorra zabalduko du. Bakardade eta ausnarketatik beste lider erlijioso batzuekin batera gizarte amerikarrari mezuak bidaltzen dizkio: zein garrantzizkoa den barne bizitza, armagabetasuna eta bakea, elkartasuna. Garai artan amerikar agintekeriak gora egin nai zuen.

Urte batzutan monje eta aldi berean idazle izatearen dialektika eta tentsioa bizi izan zuen. Ondorioztatu zuen bere idazkiak otoitz-kerak bat zirela, beretik zabaltzeko komunikabide sakona. Bere idazkietan arrigarri gertatzen dena ez da kantitatea ala kalitatea, baizik zein ongi artuak izan ziren jende oso anitza eta zabal baten artean. Katoliko ez ziren irakurleak zituen. Zergatik pizten zuten interesa bere idazkiak? Bere idazkien zintzotasun eta zabaltasunagatik.

Bat-bateko idazlea, eta jakin-mina andiko. Monastegiko bakartasunetik gutunak bitartez arremantoso zabala zuen, eunka pertsonekin, eta egunerokoa idazten zuen. Zorrotz eskatu zuen bere egunerokoa il osteko 25. urtea baino leen ez argitaratzea, eta 1995. urtean eman zen argitara egunerokoaren Leen Zatia. Bere idazlan ugaria erradikala eta zuzena da aldi berean; tradizioari lotua eta bere garaian errotua; oso kritika zorrotzekoa baina begirunez azaldua.

40 liburu baino geiago argitaratu zuen, poesiatzko beste 11 liburu, eta 500 inguru artikulua. Baita zenbait itzulpen latinetik, frantsesa eta gaztelaretik. Isilpean mamitutako azaleratzeko gaitasuna izan zuen. Sei motatako idazkiak dira bereak: santuen biografiak, egunerokoa, ausnarketa teologikoak, saiakerak, idazle klasikoen itzulpenak eta nobela bat. Orrez gain, 5 liburuki zenbait idazle eta beste zenbaitekin trukaturako gutunez.

Monasterioko bakartasunean ez zen mugatua sentitzen, eta gaur egun erlijio joera zein arlo intelektual desberdineko jende onartua da.

Bere garaiko gizartearekiko izan zuen atxikimendua argi geratu da zenbait idaztietan gerrate nuklearraz, arrazakeriaz, indarkeria ezaz, indio amerikarretaz, eta zientzia al teknologiaz, existentzialismoaz edota ekialdeko jakindurietatik jaso dezakegunaz. Era berean aztertu zituen monasterioko espiritualtasunari lotutako gaietaz: gogoetak, Bibliatik jasotako pentsakizunak, Gurutzeko San Joan, Norwich-eko Juliana eta San Bernardoren espiritualtasunaz... eskolastikako jakitunetaz, basamortuko aitzin monjeetaz, sufi mistikoak, zen espiritualtasuna, eta abar.

1) Zein pentsaeratik jasotzen du bere lanerako: basamortuko aitzin monjeak eta San Agustinenandik. Basamortuko Jakinduria liburuan antzinako monjeen esaerak komentatzen ditu. S. Agustinenandik, berriz, eragin andia jaso zuen.

2) Baita eragin andia jaso zuen Erdi Aroko ainbat pentsalariengandik: S. Bernardo, S. Buenaventura, Duns Escoto, eta denen gainetik Santo Tomas, baita mistikoengandik: Eckhart, Taulero, Ruysbroeck eta Juliana Norwich-ekoa.

3) Bere espiritualtasunean garrantzi andikoa gertatu zitzaizkion Loiolako S. Inazio, Santa Teresa eta Gurutzeko San Joan.

4) Azken mendeko espiritualtasunezko liburuen

artean eragingarri izan zitzaizkion beste hauenak: Etienne Gilson, Maritain, Rahner, Teilhard de Chardin, Tillich eta Gabriel Vahanian

5) Irurogeiko amarkada erdialdean idazlan andana irakurri zuen, batez ere gizarte artaz kritiko zirenen liburu ezagunak. Egile auen lanak:

William Faulkner, Orwell, Camus, Julien Green, André Malraux, Sartre, Jung, Simone Weil, Gabriel Marcel, Bertold Brecht, Hannah Arendt eta Mahatma Gandhi.

6) Estatu Batuetako beltzei begirune andia zien, eta euren arazoa obeki ulertzeko Luther King eta beste lider batzuen lanak irakurri zituen.

7) Beste literaturgileek ere eragina izan zuten: Dante, Shakespeare, William Blake, Eliot, baita hippy mugimenduko poeta batzuk: Ginsberg eta Kerouac

8) Ernesto Cardenal nobizio ikaslearen bitartez Egoamerika eta espainiar izkuntza poeta auen eragina jaso zuen: Cesar Vallejo, Rafael Alberti, baita Fernando Pessoa portugaldarrarena.

9) Bere garaiko pertsonai ezagunekin beintzat gutun bidezko arremana izan zuen: Esatu Batuetako Johnson presidentea, Jacqueline Kennedy, Martin Luther King (onek Getsemaniko monastegia bisitatzeko asmotan zegoen il aurretik), Joan XXIII eta Paulo VI aita sainduak, Helder Camara

10) Bere bizitzako azken urtetan garrantzi andiko eragina jaso zuen espiritualtasuneko pertsonai esanguratsuetatik, bai anglikanoak, zein judaismoak (Erich Fromm), ortodoxoak, protestanteak (Tillich), sufi mistika, induismoa, zen budista (William Johnston, Suzuki) eta budismo tibetarra (Dalai Lama). Baita Ipar Ameriketako jatorrizko indioen buruzagi Cyrus Lee-rekin. Gainera, taoismotik esan izan da Merton dela "pentsaera txinoa obekien ulertu duenetako bat".

James Forest, Catholic Worker aldizkariko zuzendariari deigarria egin zitzaion Mertonek zuen kementa, eta eukaristiari buruz esan zionak sortu zion zirrara: "Eukaristiari buruz mintzatzen asi zela bereala bururatu zitzaion meza dantza zela, non eternitatea (betierekoa) orainaldian murgiltzen den, eta orainaldia betierekoan.

Dom Flavian Burns, 1968 urtean Getsemaniko abate zenak, Asiarako egindako bidaiaren arduraduna, Mertonen bizia eta lana Jainkoaz zuen kontzientzia eta gizartearekiko zuen irrikaz beteta

zegoela. Orregatik uste du Merton ain autobiografikoa izatea: Jainkoak sortua eta bizitzera deitua zela sentitzen baitzuen.

Bizitzaren azken aldian, Mertonek onelako irizpidea zuen monastegien zereginaz:

"Niri dagokidanez gero eta uste andiagoa dut nire zeregina barnenetik bizi dudan tradizioa argitzea dela: jakinduria eta espirituz betetako tradizioa, ez dela soilik mendebaldeko kristautasuneko, baita ere ortodoxoetan, eta antzeko eran Asian eta Islaman. Zentzuzko izatea, oreka eta bakea lotuta daude iraganean baliozko izandakoari jarraitzea. Baina au ez da soilik banakoen zeregina. Benetako garrantzia du Eliza eta munduarentzat"

Mertonen ikasle nobizio eta apaizgai izan zen Ernesto Cardenal-ek dio asiera maisuarekin zituen el-karrizketa espiritualak utsean uzten zituela, sarritan Nikaraguako egoera kultural eta politikoaz albisteak mintzatzen aritzen zirelako. Baina aurrerago Mertonek ikusarazi zion ez zuela bere garaiko egoerak aaztutzat eman bear, ez zegoela bateraezintasunik bizitza kontenplatiboa eta ekintzazkoa artean.

Cardenal-ek Nikaraguan Solentinameko elkarte sortzean Mertoni argibideak eskatu zizkion. Eta onek erantzun leenengo betebeharrak zela betebeharrak ez jartzea. Agian idealismoz beterik, Mertonek egitura gutxiko eta Espirituak mugitutako elkarte baten ametsa zuen Joan Baez kantariak Thomas Mertonek bere anaia John Paulen, II. Mundu Gerratean ildakoaren gomutaz sortutako poema abesti bezala musikatu zuen.

Californiako Santa Barbarako Erakunde Demokratikoetarako Ikasguneko sortzailea zen Ferry dio Mertonek munduari emandako leen begirada maitasunezkoa zela, eta gero jakinduriazkoa, eta azkenik ironiazkoa. Bere iritzi, Merton ez zen soilik pertsonai erlijioso eta morala izan, batez ere gizon andi bat izan zen. Dalai Lamak "gehe" deitu zion. Au da: "jakituna" "katolikoa" eta "gizon santua". Eta gaineratzen du santua dela dakiena praktikara zintzoki eramaten duena, eta asko jakiteaz gain bizitza arrunta eta xumea daramana, besteak errespetatuz.

Jean Jadot, ez-kristautentzako Batikanoko Idazkari-zako buruak iru balio sakon antzematen zituen Mertonengan: leena, naturarekiko arremana, bigarren barnetasunerako joera, gizaki guztientzat bearezko dena, eta azkenik arreman pertsonalak, besteekin bateratzeko eta komunikatzeko bide bezala.

John Eudes Blamberger, 1950 urtean Mertonen nobizio ikasle izandakoa, eta gerora Getsemaniko monastegira atxikitako Nueva Yorkeko beste monastegian 1971. urtean abate zenak zioen Merton monjearen iazeraren muina barkatua izatearen bizipena zela.

Blamberger-ek oroitarazten du Mertonek autobiografian kontatzen duela bere aita il eta gutxira Erroman hoteleko gelan zegoela, aita ustekabean azaldu zitzaioela. Aita margolaria izan zen, eta buruko tumoreagatik azkenaldira ezin zuen itzik egin. Mertonek ospitalean bisitatu zuenean aita irudi txikiak marrazten ari zen *ñ*santu bizantinoak-erlijiotasun sakoneko ikonoak. Bere aita Erroman espiritualki presente egitearen gertaera orrek bere barnean aldaketa sakonak eragin zizkion. Bestalde, eguneroko bizitzan Mertonengan jarrera kontrajarririk aurkitu zituen: umore onekoa eta aldi berean leorra, besteei begirunea eska eta eska, urbila eta aldi berean urruna San Bernarδοz asko idatzi eta aditua den Jean Leclercq-ek dio Mertonen espiritualtasuna bizitza osoa otoitz-bide bezala zuzentzean laburbiltzen dela.

Monica Fulong-ek Mertonen biografiaren azken atalean onen nortasunaren ezaugarri batzuk agertzean bizitza bete eta landua izan zuela aipatzen du. Baita aldi berean xume eta pobrea. Goizegi umezurtz geratzeak bizitza onetatik aratagoko bizilekua bilatzeari etengabe ekin zion. Oreka lortzeko zuen bear biziak ulertarazi diezaguke bazterrean bizitzeko joera, bakartasunerako jarrera eta ain abegikorra izatea, oreka zailean garatzen zuen errukitasuna eta urruntasuna. Laster sentitu zuen bizitzan zeregin "berezira" deitua zela, batzutan era erromantikoan ulertua, bestetan ia puntako neurosia. Bultzatzen zuen asmoaren anditasunak eta zituen gatazka, frustrazio, okerbideak bere idazlanetan ain argi eta biziki adierazteak ispilu lana gertatu zitzaion, non askok ikus genezake gure duintasun andiaren txikitasuna, gure izaera bikoitza galdua eta orbangabea. Bere garaiko eta gizartekoa zela onartuz, gaingitu nai izan zituen bere ni-a aurkitzeko, monastegia alboratu nai zuen munduaren bertsio obetua bezala ulertzen zuen. Monastegi bizitzak isolamendua bazekarkion jatorrizko esanai erlijiosoa galtzeko arriskua zekarkion, eta itxuraz obetu gizateriarekiko gorrotoa, beldurra eta errudun sentimendua. Dena den, maitasunezko bateratze asmoak balizko isolamendua litekeena urbiltze eta elkartzebide egin zitzaion.

Fulong berak nabarmengarritzat ematen ditu ezaugarri auek: oiko osasun arazoak, mugarik gabe lan fisiko eta intelektualerako jarrera, irakur eta idazteko gaitasun aparta, monastegiko Arauei benetako leialtasuna, egunero otoitza eta gogoeta eginbearrak zintzo betetzea, eta yoga eta zen bideko auto-ezagutza ariketa.

Denok ados dira Merton bere autuari guztiz leial eldu ziola, leialtasun ori bizitza monastikoan bizi zuela, eta ortik Jainkoarekiko bidea egiten saiatu zela.

Tradizio ezin obe ezagutzen zuela, eta zenbaite-tan bizitza monastikoa berritzearen aldeko aotsa izanik, ez zein inoiz geratu azaleko xeetasunetan. Bein eta berriro errepikatu zuen ongi prestatutako monjeak, eldutasun eta prestatuak zirenak, elkarrizketa sendoa izan bear zutela barne mailan giza obekuntzaz eta bizipen espiritualaz arduratuta zeuden pertsonekin: poetak, filosofoak, psikiatrak, artistak, monjeak euren antzeko "profesionaltzat" ar zitzaten, naiz eta egunerokoaren ikuspegi eta bizipen desberdinak izan.

Ezaugarri auek nolabaiteko arriskua dute guk geure irudimenez bere nortasun itxura bat egiteko, agian idealizatuz. Komeniko zaigu bere izaera zeatza eza-gutzea, monastegikide zituen aipamenak kontutan artuz: esku eta anka txikikoa zen, janzkera landugabekoa, itz egiten zuenarekin beti adeitsu, begirada bizia, umore on eta alaitsu mintzoa bazuen ere asko eskertzen zituen isiluneak tartekatzea, eta izketak geiago ematen ez zuela sentitzean amaiera bere-ala ematen ziona. Denbora aurrezteko joera trinkoa zuen, eta besteekin egoteari uko egiten ez bazion, ez zuen inola ere denborarik galdu nai. Sakon konzentratzen zen, eta lanean antolamendu onekoa zen. Egunerokoak xeetasun osoz prestatzen zituen. Izketan atsegina, eta beti ikuspuntua interesgarriak ematen zituen, gaia edozein zela ere.

Errespetu andiz entzuten bazuen ere, zerbaitetaz iritzirik bazuen oso zaila izaten zitzaion ikuspuntuz aldatzea. Oso azkar idazten zuen,

eta ez zuen sekulan siestarik egiten. Baina ez zuen onartzen ez beretzat ez nobizioentzat lanagatik otoitzik denbora murriztea. Eguberri eta Corpus Christi jaietako apaingarriak oso desatsegin zitzaizkion.

Gaueko otoitza oso gogoko zuen. Pertsonak eta natura biziki maitez ituen. Basoan ibiltzeak zori-ontsu sentiarazten zuen. Nekazal tresneria ez zuen

gustuko, eta landetxeko lanak geiago begiratzeko zituena ikuspuntu erromantikotik praktikotik baino. Beste arlotan teknologia miresten zuen. Eskulanak estimu andian zituen, naiz eta bera ez izan orretan trebe. Sukalderako ez zuen gaitasun andirik, eta erremintak erabiltzen aldrebesa. Elkarrekin bizitzan ez zitzaion garrantzirik ematen, eta batek baino geiagok urteak igaro ondoren jakin zuten konbertsioa kontagai zuen "Zazpi zirkuluen mendia" liburu arrakastatsu eta best-seller-aren egilea aita Louis, monje bezala erabiltzen zuen izena, zela.

Liburu orretan Kentucky-ko Getsemani monastegitik era ungarriaren kontatzen du katolizismora egindako ibilbidea.

Ernesto Cardenal bere nobizio izandakoak uste du Mertonek Estatu Batuetan ikuspegi ezkorra zuela, eta Latinamerikako egoera ekin ziola, kultura ura obeto ezagutzeko. Esanekoa zen, agintzen zitzaiona betetzeko prest. Ala ere, desadostasun nabariak izan zituen bere nagusiekin. Baina beti amore eman zuen, nagusien zeregin berezia salbamenaren mugimenduan kokatzen baitzuen. Intuizioz beteriko pertsona bezala, ausarta zen asmoak errealitatera ekartzekoan, anka sartzeko beldurrik gabe, eta batzutan okerrak izan zituen. Bere elkartekideek zatitzaile bezala izan zuten, ditxosozko "eztabaidatzailea", galdera irekia eta erantzun gabekoa; gizon libre bat. Berarekin bizitako monje batek zioen "elkarrekin leen lerroan kokatua zegoela", baina beste batzuk bazterrean bizi zen "iraultzazale" bezala ikusten zuten. Profeten ezaugarria.

Bizitzaren amaiera aldera erizain gazte batekin arremian delikatua izan zuen. Gertatutakoa aiturtu zuen, eta bere zenbait biografietan ageri den parsartea da. Bere elkarrekin zuer eta ulermen andiz jokatu zuen, eta bokaziotik urrunduta baino erabat eta sakonkiago bokazioari eldu ziola onartu zuten.

Mertonen pentsaera bi iruditan oinarritzen da: bidaia eta ni-a. Betiko biziaren eguzki argi bila doa monje ororen bizitza. Bizitza monastikoa ibilera da, eta benetako ni-aren bilaketa bakardadean egiten da. Bi irudi auek Estatu Batuetako literatur tradi-

zioan geri dira, kolonizazio garaietatik. Estatu Batuetan norbanakoek etika protestantea eta zorrotasun kalbinistaren eraginez bete bear espirituala eta jainkotasuna oso kontutan izaten dute. Eta orrek zenbaitetan zapalketa eta menderatze politika onartezinetara eramaten du. Naiz eta Mertonek tradizio puritano orretatik etorri, bere idazlanetan "berekoitasunaren" zirrikitu sotilak argitzen aalegintzen da.

Banakoaren berekoitasunak ekonomia mailan kapitalismo gordinera eramaten duenez, Mertonek teologia prometeika deitzen dio.

Teologia orrek gizakiek jainkoei sugar sakratua lapurtzea onesten du... baina gizakiak Adanetik ona jaso du dagokion izaera benetakoa.

Mertonek barne isiltasunean murgiltzeko ausardia eskatzen du, baita bakartidena baino Jainkoaren bila dabilzan besteekin bakardadea partekatze-ko arriskua. Bakartasun orretan jardunez itzetik

aratago dagoena antzeman genezake. Bide orretan, benetako ausardia ez da soilik barne bakardadean egotea, baita besteekin partekatzea ere.

Bizitako ibilerak erakutsi zion konbertsioa amaiera gabeko bidea dela, eta "garena izaten" datzala, aua da, era xumean.


Thomas Merton ikastegia inauguratzera joan zenean, Merton berak esan zuen idatzia zuen gutzia egi mamitsu batean laburbildu daitekeela:

Jainkoak gutztoi berarekin bat egitera deitu gaituela, eta gure artean Kristo bidez gorpu mistikoa den Elizan batzera.

Mertonentzat gizartea orriaren alde bat da, eta bestea bakardadea. Bietan historiaren erantzukizuna ez bairik gabe geure gain dugu.

Biziaren zuaiza betierean, eternitatean, errotua badago ere, orainaldira zabaltzen ditu adarrak. Mertonen aburuz, historian egin bear dugu gure bidea, eta kristau bezala dagozkigun bete bear ditugu.

Patxi Otamendi
Euskal astea





Nafarroa 1200. urtea (III)

Adostasunean ala aurre egiñez?

Oraindik itzal andiak dagoz ainbat errien erorketa indarrez ala errendizioz gertatu ete ziran jakiteko, agiriak gitxi dira ta. Zenbait ikerlarik uste dabe lurren zabalera kontutan artzen bada, Araba eta Gipuzkoako zati andienak nobleziarekin egindako itzarmenen bidez lortu zirala, baita bertoko erritar batzuen laguntzaz¹. Ez dirudi itzarmenetan lurraldeen jabegoa berme apur batzuen trukean soilik emon ziranik, naiz eta litekeena da gaztelar erregeak nobleen buruzagiekaz urien geldiera adostua izana. Gasteiz uriak eta Portillak zein Trebiñoko gazteluek tinko eustearen salbuespenarekin, litekeena da nobleek gaztelarren agintearen alde egin izana, nafar erregeek asitako berrikuntzak burutu gabe gera zitezen, batez bere erregetza sendotu eta uribildu barriak sortzea, nafarren erabaki orreik jauntxoan famili interesak indargabetzen bait ebezan. Argi da jauntxo arabarrak eta gipuzkoarrak okerbideetik zindoazela uste baeben Gaztelako agintariak bigunago jardungo ebela. Zeren menderatzea ostean, 1203

urte inguruan, Diego Lopez Haro, Bizkaiko jauna, gaztelar erregearekin asarratu zan, eta Lizarran babestu². Araba, Gipuzkoa eta Durangaldea gaztelarren menpe geratzeak bi lurralde arteko muga ekarri eban, eta ori nobleen interesetatik arago joian.

Gaztelaren aurkako liskar-izteak

Borrokaldiak iztean liskarrak be bukatuko zirala gaztelar erregeari itza eta siñadura emon jakonean burutu zan Nafarroa erresumako mendebal lurraldeen galera (Araba, Gipuzkoa eta Durangaldea). Naz eta Nafarroak ez eban orrelakorik sekulan ontzat emon, 1200 urtean sortutako egoera egonkortuz joan zan. Moldaketa apur batzuk egon ziran, ala nola Araban Trebiño eta Portilla erri-guneak 1201 urtean Nafarroako Izura eta Miranda orde aldatu ziran, onek 1198 urtean Gaztelak menderatuak ebezan³. Nafarroa artu ostean Gaztelako Alfontso

1.- PALENZUELA ÁLVAREZ, V. Á., *Historia de España en la Edad Media*, Ariel, Bartzelona, 2002, 399 orr.

2.- FERNANDEZ VALVERDE, J. (ed.), *Roderici Ximenii de Rada, Historia de Rebus Hispaniae sive Historia Gothica, Tumhout (Belgika), 1987, 254 orr. Ikus VIII liburukia., XXIII kapitulua*

3.- FORTUN PEREZ CIRIZA, L. J., *Sancho VII el Fuerte (1194-1234)*, Iruna, 1987, 156-162 orr.

VIIIak kezka bat eban, zeren 1204ko bere azken borondatean itza emoten eutson Nafarroako erregeari larrialdi aretatik sendatzen bazan 1200 urtean kendutako lurralde batzuk itzuliko eutsozala, naz bereak zirla uste baeban be: “Promitto etiam quod, si Deus dederit mihi sanitatem, ego restituam regi Navarre omnia que teneo de parte de Araniello usque ap Fonyrm Rapidum et castello de Buraon, de Sancto Vicentio, de Toro, de Marannon, de Alcaçar, de Sancta Cruce de Campeço, villam de Antonanna et castellum de Atauri et de Portella de Corres. Scio enim quod hec omnia predicta de regno regis Navarre debent esse et ad eum pertinere”⁴. Alan da be, errege gaztelarrak ez eban iñoiz azken itz a bete, agian soilik billatzen ebalako Nafarroak bere mendekotasuna aitortzea. Soilik 1212 urtean Navas de Tolosa gudaldian eskeñitako laguntzagatik erri eta gotorleku onek itzuli eutsozan Sancho VIIa Indartsuari: Buradon, Toro, San Bizente eta Maraño.

Ondamendia ondorengo kalteak

Mendebaldeko lurraldeak menderatuak izatea, Nafarroako erresuma 1.134 urtean birrantolatu zanetik jasandako lur-galtze andiena izan zan. Erresumarako ondorio gogorrak izan zan lurrak, menpekoak eta baliabideak galtzea. Ondorio latzenetako bat Kantauri itsasora urtenbide bakarraren galera izan zan, orrek nafarren kanpo merkataritza aultzen ebalako, batez be Europa Mendebaldeko kostaldera zuzendua. Isolatze eta baliogabetze egoera orretan, Santxo VIIa Indartsuari geratzen jakon aukera bakarra iparraldeko mendate aldeaz baliatzea izan zan. Orrek Juan Sin Tierra errege ingelesarekin alkar laguntza siñatzera eroan eban, 1199-1216 urteetan. Tarte orretan siñatutako itzarmen garrantzitsuenak, 1204 urtekoa, nafarrei aalbidetu eutsen merkataritza eginkizunak Baionaraño luzatzea. Orrela euskal kostalde lerroan itsas bide galduaren ordekoa lortzen zan⁵. Gaztela, ezin obe geratzen

4.- GONZALEZ GONZALEZ, J., *El reino de Castilla en la época de Alfonso VIII*, 3. liburukia, Madril, 1960, 341-347 orr. Erri orrek dira: Buradon, San Vicente, Toro, Maraño, Alcaçar, Santa Cruz Kanpezu, Antoñana, Atauri eta Portilla Corres, eta gañera Araniello eta Ondarribia arteko lurraldea.

5.- LACARRA J. M., *Historia del Reino de Navarra, Caja de Ahorros de Navarra, Aranzadi, Iruna, 1972, 101 orr. Ikus gainera GERMAN DE PAMPLONA, P., “Sancho el Fuerte, iniciador de las relaciones amistosas con la ciudad de Bayo-*

zan, Bizkaiko Itsasoaren kontrola bereganatuz, bere azkunde ekonomiko eta sozialaren onuran, Gipuzkoatik zear merkataritza bide barria zabaldu bai eben, gaztelar lurraldeetako ekoizkinak Gaskoñako duketzaren mendialdeetaraino bideratuz. Alfontso VIIIak lurralde orrek bere esku lortu nai ebazan, Akitaniako Leonorregaz ezkondua zegoelako⁶. Flandesko uriburuetako kaietara artillea elarazteko garraibideak antolatu ebazan. Ondorengo amarkadetan errege gaztelarrek, bertoko jauntxo batzuekin bat egiñik, menderatutako lurretan merkatal bide eta ontzietarako kaiak sustatzeko uribildu barriak sortzeari ekin eutsoen. Orrela, 1202 urtean Donostiako Forua barriztu eben, eta geroxeago kostaldean uribilduak sortu ziran: Ondarribia (1203), Getaria eta Mutriku (1209), Zarautz eta Bermeo (1237). Barnealdean sortutako artean aipagarrienak Balmaseda (1199) eta Otxandio (1254), Bizkaiko mendateetatik Burgoserako bidean kokatuak. Baita Segura, Ordizia eta Tolosa (1256), Arrasate (1260) eta Bergara (1268), onek Gasteizetik Gipuzkoako kostalderako merkataritza bidean.

Sortutako mugaketa artifizial barri onek mendebalde lurraldea gaztelarren menpe geratzeak, ordu arteko batasun kulturala galgarrian jarri eben. Euskera euskalkietan nabarmen banatuta geratu zan, lurralde geienetan euskarak gaztelaniaz gain eban nagusigoa galduz⁷.

Muga barriaren sendotzea (1200-1219)

Gipuzkoa, Araba eta Durangaldea galdutzat emon ondoren, Santxo VIIa Indartsuak Nafarroak gaztelar lurrekin eban muga-lerro barria trinkotzeari ekin eutson, lurrak babestu eta eraso barriak ekiditeko. Leen lan bezela mugan zear gotorleku multzo bat eraikitzea artu eban: Lizarra, Gares, Labraza, Guardia, San Vicente Sonsierra, eta beste zenbait gaztelu. Lurralde guztia babestuta geratzen ez zanez, babes lerroan beste gazteluak eraiki ebezan: Buradon, Toloño, Herrera, Toro, Maraño, Punicastro, Monjardin, baita Lana ta Orzorroz kobazuloak. Bere ekinbide defentsiboa eta urigintzaren garapenarena

na”, *Príncipe de Viana*, 88-89 zbkia(1962), 495-500 orr.

6.- PALENZUELA ÁLVAREZ, V. Á., *Historia de España en la Edad Media*, Ariel, Bartzelona, 2002, 399 orr.

7.- URZAINQUI MINA, T., *La Navarra Marítima*, Pamiela, Iruna, 2007.


uribildu barriakaz burutu eban, leku onetako biztanleei foruak emonez: Inzura (1201), Burunda ballera (1208) eta Bianako gotorlekua (1219)⁸.

Santxo VIIa Indartsuak Viana sortzen dau (1219)

1219 urtean Biana sortu eban, batez bere arrazoi militar eta babes estratetikoenatik, naz eta tartean arrazoi ekonomikoak be izan, uribildu a Santiagoko Bidean egoelako. Au da, Erdi Aroko merkatal bide garrantzitsuena. Urribilduak sortuz Santxo VIIa Indartsuaren asmoa geien bat nafar erresumako ego-ekialdeko muga babestea zan, Ebro ibaiaren banatze bidetik. Orretarako Biana muño ganean sortu eban gotorleku gisa, arresiz inguratua gei gaztelu bat, nondik beste gotorlekuakaz batera -Torralba, Mendabia, Moreda, Labraza, Guardia eta San Vicente Sonsierra- nafar erresumako ego-ekialdea bea zitekeen. Biztanle barriak erakartzearren, Santxo VIIa Indartsuak “Arranoaren Baliatze berezia” eskeñi eban 1219 urteko apirillean, Logroñoko Forutik eratorria (1095), baña Guardiakoaren arabera moldatua (1164), XIII mendeko Gaztelarekiko muga urbilleko egoera militarerra egokitua. Foruan biztanle arteko artuemonak arautzen ziran, baita erregearegaz izan bearrekoak. Bide orretaz Bianakoek salbuespen ugari lortu ebezan. Tartean: auzo zerga eta beartutako lanak ekiditea, baña ez orrela etxaldeen eroldarako zergak. Ondasun eta funtsen salerosketetarako askatasun osoa emon jakien, baita amankomuneko ondasunaz baliatzea, ala zelan bera, belardiak eta erri muga barneko mendi lurak⁹. Forua jaso ostean, inguruko

8.- ÁLVAREZ URCELAY, M. (et al.), *Historia de Navarra, Kriseilu, Donostia, 1990, 119 orr. Ikus gañera MARTÍN DUQUE, J., “El fenómeno urbano medieval en Navarra”, Príncipe de Viana, 227 zbkia (2002), 727-760 orr.*

9.- YANGUAS Y MIRANDA, J., *Diccionario de Antigüedades del Reyno de Navarra (1840), Biblioteca de la Historia y cultura Navarra, IV Liburukia, Ediciones Herper, Iruña, 486. orr. Ikus gainera LABEAGA MENDIOLA, J. C., Viana, Colección Panorama, 37 zbkia, Príncipe de Viana, Nafarroako Gobernua, 2006; ANTOÑANA, X. de, El Fuero de la Ciudad de Viana: Privilegio del Águila, Logroño, Pisamar,*



errixketako nekazariak (Longar, Tidón, Perezuelas, Cuevas, Piedrafita, Soto, Cornava eta Goraño) uribildu barrian bizitzen finkatu ziran Bianako biztanleria andituz, gañera mota desberdiñetako jendek bertaratu ziran eta: merkataria, frankoak, elizgizonak eta beste lurraldetako juduak¹⁰.

Bein Nafarroa erresumako mendebalde lurraldeak galdu, 1219 urtean Biana sortzearegaz amaitu eban Santxo VIIa Indartsuak Gaztela eta Nafarroa arteko muga trinkotzea. Gerora bere asmo nagusia erregetzaren ondasunak aunditzea izan zan, eta gaztelar eraso geiago erresumako lurraldeak beraganatu egiezan ekiditea.

1991.

10.- MORET, J. de, y ALESÓN, F. de, *Anales del Reyno de Navarra (1766), III liburukia, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969, 126 orr.*



Euskalerrria edo Euskadi

“Berezko sorterri edo aberria da” (III)

ERROMATARREN EDESTI LABURRA.

Mundu onetan ezagutzen ziran jendekuntzak eta lurrak batzangotzeko asmoak, baleiteke ariñagokoa izatea, baiña Asirian Tigris ibaiarru edo sakanean⁽¹⁾, K.a. 4.500 urtetik asita Ninibe uri nagusi lez izana, I Sargonek orain 4.025-4.010eko urte inguruetan menperatu ebanetik izatea.

Dana dala, ortik asi zan norkeriaren menperatzailletasunezko jendekuntz zikin ori.

Geroago, Persen errege Ziro⁽²⁾ aundiak asita, I Dario⁽³⁾ ta I Jerjesek⁽⁴⁾ izan ziran Mundu onen eta orduko Europaren jendekuntza guztiak morroitasunean batzangotu gure ebenak. Eta jendekuntz⁽⁵⁾ aundi bien arteko alkar aurkeztea⁽⁶⁾ sortu zan.

Orduko Persak eta Griegoen jendekuntzak ekanduzko oituran, bata: menperatzaille gogoko oso osoan izan zalako; Eta bestea: azturazko giza bidean ekanduzko mailla aundira elduta, Askatasunezko Demokrazi aundi baten sinismenekoa izan zalako, begiz begiko aurkakoak⁽⁷⁾ izan ziran.

Eta Greziatarren Demokraziari ezker, or geratu ziran leenengo aldiz Medikaseko guda ospetsuekin, Europa faziztak menperatzeko euki eben asmakuntzak.

Baiña, Etruskoak Italiako lurraldeetan Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egon ziranak, espartar guda antolamenduan erromatarrak sortu ebezan, eta oraingoan Europaren barnetik asten dira menperatzailletasunezko larri aldiak barriztuta.

Erromatarrak len zentzuz ondo bideratuta egon ziralakoan euren ustez, emen asmatu ebezan benetan, gaur oraindiño norkerizko eritzian dagozan zorigaiztoko batzangotasun gogo orreik, Munduko errigizarte guztiak, fazizta antolamendu barri onen mendean ondo zuzenduta egon gindezan.

Guda antolamendu ondoren, Latiña be sortu eben, norkeri orren mende batzangotuta izkuntz bakar orregaz bizi gindezan, gure gaurko egunerarte.

Erromatarrak, gudalari edo borrokalari aundiak izan ba ziran be, sekula ez ziran izan erri bat eskolatzeko gai.

Eta ibili ziran lurraldeetatik ikutu eben guztia batzangotu baiño, erriarrak auzotasunean euki eben elkartasunezko⁽⁸⁾ batasunetik asita, milla zati geiagotan banandu ebezan⁽⁹⁾, izkuntz ta senitasunean.

Geiago, K.a. 240garren urte inguruan norkeri bidez, euren maldaberazko arazoak asi ziranetik.

(1) Ibai arru edo sakana = foz, barranca, desfiladero, valle, o, cuenca del rio. (2) K.a. 560-529. (3) K.a. 521-486. (4) 519-465. (5) Jendekuntz = civilización. (6) Alkar aurkeztea = confrontación. (7) Begiz begikoak = diametralmente opuestos. (8) Elkartasuna = confederación, hermandad. (9) Alemania, Farntzia ta erdi ugarte onetan (peninsula iberica), izkuntza ta erri-maillan sortu zan antzera.

Denbora onetan, erromatar erritaren be maillako sendi aberats batzuk, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko eta euren diru zaletasunak gaintzeko, erri gurasoen⁽¹⁾ sendiakaz alkartu ziran.

Alkartasun orren ostean jaurkintasunezko lege guztiak euren eskuetan egonda, batzuen aberastasuna, andi mandikeria, apainkeria ta kirkilleriak⁽²⁾ goraldu ziran ezin beste, eta kaizartza sortu ebenean, berau goraldu eben euki ebazan sasi jainkoen maillara.

Eta sasi legeekin berezko baserritarren antolakuntza ezereztu ondoren, menpetasunezko joputasun antolakuntzan⁽³⁾, lur zabaleko etxagun aundiak agertu ziran.

Euren arbasoak goi maillako jakintzan lortu ebezan ekanduzko oiturak ortik aurrera, neurri aundienean galduta.

Jesus gurutzatu ebenetik, Kristau ekanduzko erlijio indartsu ta guztiz ederra be sortu ta zabaldu zan, baiña dana alperrik, norkerizko eritzi zikin orren mendean geratu zan eta.

I Konstantino erromatarren kaizerrak ikusita, eurak maldabera aundienean sartuta egon zirala, eta kristautasunaren sinismena orduko errigizarteetan indartsu ta zabalkuntz aundia artzen egoala oartz, beragaz bat egin gura eben, eurak orduan jaurkintzaren buruz euki ebezan zentzuak indartu eta irudizko eran, berritzeko naian.

K.o. 311n ta 313an Kristautasuna legeztu ta euren jaiak ospatzeko baimen guztiak emonda, I Silbestre Aita santuagaz alkartu zan, euki ebezan batzangotzeko asmakuntza orreik, bion artean lortzeko.

K.o. 325ean I Konstatino I Silbestre aita Santuagaz batera, Nizeako Eleiz batzar nagusia batzeko agindu eben, eta erromatar goitik berako araudian Kristautasunaren katolikotasuna sortu ta alderdiketatu ebenean, munduan norkeriz egin dan lapurkeri aundiena egin zan, erromatar kaizertza eta dogmaren arauz Aita Santuaren uts ezintasuna, mendeko eritziak bear dauzan osagarritzko siniskai legeakaz ezarri ebelako, Jainkoak bereztuta ezarri Ebazan Lege guztiaren aurka.

Ortik aurrera, munduko errigizarteak kontrolpean batzangotzeko kaizar eta Aita Santuaren mende, bizitzeko bear doguzan on guztiaren kontrola dabe, gaur sortzen dan lez.

Eta ziñezkintza edo dogmatika bidez olan egin ebenetik, munduko norkeriaren merkantil edo diru zalekeriaren fazizmoari, ate guztiak zabaldu eutsezan, dogmaren arauz munduko gizartearen jakintsu geienak norkerira bideratuz, Jesusek emon euskuzan bereztasunaren buruz aolku guztien gaiñetik.

Orregaitik ez gara arritu bear gaurko merkantilismo eta diruaren sasijainkotasunagaz, munduko errigizarte guztia mendeko asmakizun orren kon-



(1) Erri gurasoen = patricios. (2) Kirkilleriak = fastuosidad, suntuosidad, lujo excesivo. (3) Joputasun antolakuntzan = organizaciòn de esclavismo. (4) Arpel-arri edo Arri-zapaltzeko gailluakin = apisonadora.



trolopean eukiaz, eurak jabetu ziralako tresneri guzti orrekin, eta eurekin arpel arri edo arri-zapaltzeko gailluakin⁽⁴⁾ izan balitz bezela, gudu indarraren bidez, beti etorri dira Jainkoaren berezko legeak eta gizaren eskubideak zapaltzen, munduko gizon/emakume geienak bizitza onen samintasunezko aldi gogorrenera bideratuta, batzuk sasijainko lez iraun egien.

Edestian zear, Jainkoak ipinitako legearen aurka egin diran borroka nagusi bakoitzaren ostean eta ikusita zelako sarraski edo odoljariozko triskantzak egin ziran damu, agintarien

“baitak” zuritu edo garbitu naian, beti artu dira zentzunezko erabagi gogorrak gizartearen zor eskubideari begira.

Antza baiña, danak itxurazkoak izaten dira, urren-go egunean osteria itzultzen diralako norkeriaren lapurrezko bide zikiñ orreitar.

Eta guztiz arrigarria dana, ortik aurrera egiten daben guztia “Askatasunaren” izenean egiten dabela da.

Baiña, nundik nora askatasuna ta menpea guztiz aurkakoak izan da, batera eroan ?.

Almen ori, Jainkoaren almena da bakarrik. Berak bereztutako gai onetara, zor eskubidearen ordezkarrizako eragille lez bialtzen gaituelako.

Zelan nastatu Bere agindua, guk neurtuta daukaguzan almenakin ?. Gure ekintza bizitz onetan uste dot, beste gauza baterako dauela antolatuta.

Jainkoari begira, nire bizitzako gazte denboratik ona, beti entzun dot mundu onetan “pekatua” dala gauzarik txar edo okerrenera, eta damu ori zuritu naian, edo ta nabarkeriz danak ikusi egien, ukabillagaz bularra jotzen dogu.

Baiña Jainkoaren beldurrik ote dogu ?. Antza, zeozer oker dago sermoigintza edo irakas aldi orreitan.

Jesusek, farisaukeriaren aurka borrokatu eban Bere indar guztiegaz. Gaur, eta andik ona, norekin gagoz?.

Dana dala, 410ean Erroma saskildu ondoren, I Alarikogaz asita, godoak sartzen dira erromako kaizargotzaren jokoan, eta onekin katolikotasunaren eritziak sendotu ta aurrera egin eben, Erromako eleizari emon jakozan aolkularitzaren orokorrezko agintaritzagaz.

(10) Erri-alda = emigración, o, exodo de un pueblo. Alderrai = nómada, (1) Piktoak euskaldunak ziran.

GODOEN EDESTI LABURRA.

Godoak artu eben Erromatarren ordezkotza, Europa kaizargo orreitan sendotzeko.

Oneik baiña, naita iru mendeko aundikerian ibili, ez eben euki denborarik Europa kaizargo mendean batzango baten ezartzeko, Mauritarrek jendekuntz aundikoak eta indartsuak, laster jabetu ziralako erdi ugarte⁽¹⁾ onegaz.

Euskalerruari begira, Godoen agintaritza lortzen eben errege guztiak “ET DOMUIT BASKONES” esan bearrean agertzen ziran, eta ortik egira, emendik eguzkira baiño alde geiago dago.

Eta aldarte orren bitartean emon jakon arnas apur bat Europari, erriak oiturazko legean, jaurkintzazko antolakuntzak al eben askatasunezko eritzi onenean ezartzeko.

Naita, katolikotasunaren alderdikerizko asmo eritziarekin, ostera itzuli kaizargotzaren batzangotazunezko bide zikiñera, ikusiko dogun lez.

Godoak, Europa zuzendu edo jaurkitzeko, ostrogodo ta bisigodoaren izen bigaz banandu ziran, euren

menperatasuna lortuta gero, kaizarrezko batzango baten ezartzeko.

Orregaitik, Godoetatik asita artu bear dogu, leen menperatzalleen askakizunezko ari ori, Mundu, Europa eta batez be ikusi daigun, Euskalerraren Askatasunezko Demokrazia, zelan joan dan murrizten gaurko egunerarte, eta gaur be zelango nasteekein dabiz alegintzen Demokrazizko aztarnak aienatu daitezcan, euren sasijainkotasuna jarraituaz.

IIn Alarikogaz⁽¹⁾ asiko gara, jakin daigun zelan 506an argitaratu eban Mendebaleko bisigodo guzti-entzat, Romana Bisigotorun legearen laburpena⁽²⁾.

Amalarikok⁽³⁾ bere erregetzaren 531ko Orrillan, Toledoko IIn Eleiz Batzar nagusia bete eban.

Emendik aurrera emon jakon Toledoko kaizartzari, gaur oraindiño PPko Kospedalek euren gazteari esaten dautsen “Toledo imperial” edo ta “el imperio de Toledo por su destino en lo Universal”.

Jainkoaren agindua ote da baimen ori ?. Aita Santi ta Martin Olazarrek: “gordinkerri bortitza” esaten eutsen askakizun orreri.



(1) Erdi ugarte = península.

(1) 484-507. (2) brebiario de Anniano, o código de la lex Romana Visigotorum. (3) 511-531.

Justinianok⁽⁴⁾ 553an Bijilio Aita Santuagaz batera, Konstantinoplako II In Eleiz Batzar Nagusia bete eban eta Mendebal eta Ekialdeko kaizartza 527-565 urte bitartean eskuratu ba eban be, bere bizi denbora be ez eban iraun. Baiña betiko lortu eban garaipena, erromatarren legeak bildumatutea zan, gaurko menperatzaillezko legeak, bere oiñarrien gainean eraikita dagozelako.

Batera 551-567n urte bitartean, Atanajildo zan bisigodoen errege, eta Justiniano ekialdeko kaizarren laguntzagaz, Ajila bota eben erregetzatik, beren jaurkintza Toledon ezarrita.

Eta Justinianorekin egin eban bakezko itzarmenagaz, Betikako lurralde zati bat Bizanzioren agindupean itzita, or jaio zan “Spaniako izena” Bizanzioren mende.

Bisigodoen urrengo errege Leobijildo Arrianoa⁽⁵⁾, bere seme Ermenejildo katolikoa il ebanetik izan zan konturatu zana, Konstantinok 325an Nizeako Eleiz Batzar nagusian egin eban antzera, katolikotasunezko erlijio barik, gatz zala euren asmakuntzak bideratzea eta bere seme I Rekarredo limurtu edo eskuratu eban aldakuntza ori egin egian.

Rekarredok 587an Arrianismoa alboratuta, 589an Toledoko III In Eleiz Batzar Nagusia bere agindupean batu eban, eta ortxe emoten jako ostera asiera mundu au errege ta katolikoek ekandu bakarrean batzangotzeko, erromatarrak euki ebezan leen asmakuntzak iraun egiezan.

Iruñako gotzaiña be birriten aipatzenda Toledoko batzar erreitan eta leenengoa, emen izan zan.

Oinkada aundi bat emonda, Ejikaren⁽⁶⁾ erregetzara eltzen gara, onen agiduan XVn, XVI n eta XVII n Eleiz Batzar Nagusiak bete ziralako.

Bitizaren⁽⁷⁾ ostean, Rodrigo⁽⁸⁾ jauna izango zan urrengo errege, Bitizaren seme Akilari⁽⁹⁾, beren seme eta aditsu⁽¹⁰⁾ batzuen laguntzarekin alkartuta, bera Akila baiño geiago zalakoan, erregetza lapurtu eutsolako, eta anai arteko guda sortu ondoren, Mauritarren sarrera erreztu ebala diño batzuk.

Edestiko arauz baiña: “Erregeak, Zeutako gobernari edo guda jaurleri Julian kondearen alaba Florinda⁽¹¹⁾ bortxatu egin ebalako”, onek gaztelua Mauritarren eskuetan itxi ebala diño, gero Bitizaren semeakin batera Mauritarrai lagunduta erdi ugarte oneitan sartu zitezen.

Dana dala, 711n Uztaillaren 19an Tariken Mauritar indarrak Guadaletoko ibai inguruan, Rodrigo jaunaren godo gudalozteak ezereztu ebezan.

Gaurko edestilari batzuk esaten dabe, Barbateko ibai inguruan egin zala borroka ori, eta kondairak Guadaletoko ibai inguruan.

Kadizeko lurraldean dagoz biak, leenengoa auzten mendietatik jaio eta beren urak Atlant itsasora botaten dabezanak, eta bigarrena Mugako Jerezen⁽¹⁾ ondotik joaten dana eta beren urak Kadizeko ur golkoan botaten dabena.

Ez ziran ezereztu, Konstantino (325) ta Rekarredok (589), Nizean sortu ta Toledotik katoliko aolkularitzan bideratu ebazan Godo Lege Bilduma orreik, 711n Pelayo jaunak (?), Erromatarren Godo sasilegedi “REX GRATIA DEI” guzti orreikaz Asturiasen kokatu zalako. Eta mauritarrai Kobadongako guda irabazi ondoren, ta menperatzailletasunaren kaizertza orregaz jabetuz, 718ko urtetik aurrera, jarraitasunean ipini ebalako.

Pelayo, 737ko urtean il zan eta urrengo errege, bere suin I Alfonso katolikua izanda, or asten da ostera be katolikotasunezko menperatzaille ari ori indarra artzen.

Frantzia eta Espainak ortik aurrera, eleiztar katolikuaren aolku aginduan bideratuta euki ebezan aldiko erregeak, ez eben iñungo errukirik euki, Jaungoikoak Bereztutako Legearen aurka, berezko ta sinismen aundiko kristau erri zintzoak sarraskitzen, naita errien iltzailleak⁽²⁾ izan.

Kristautasunaren ekandua eta katolikotasunarena, nundik elkartu leikez ?.

Nik uste dot, txinpartak ateraten dabezela, edestian eta gaur sortzen dan lez.

Gure ARIMAK ez dira gizatzen mundu onetara morroi izateko, Nor izateko baizik.

Eta egunen baten danok batzangotzen bagara, danon borondatezko sinisteak ulermen batera elduta alan eskatzen daualako izango da.

OARKUNTZA.

Erromatarrak eta Godoak, berezko izkuntzatan eta erriekin egin ebazan naaspillatuzko triskantzatan ostetik, orain sartzen gara gure edestiaren aldi barrira, ikusi daigun zelan ez zan okerreko asmakuntzarik alderatu eta gitxiago erabagi zuzenik artu, gero ta gudu indar geiagorekin gagozan laterrietan menderatu arte.

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n Urtarrillaren 31n.

(4) 483-565 urte bitartean bizi zan. (5) 568-586. (6) 687-701. (7) 701-709. (8) ?- 711. (9) Bitizaren beste seme batzukin ?). (10) nobles. (11) la Caba. — (1) Jerez de la Frontera. (2) Erri-iltzailleak = genocidas.

#Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Ikasten



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
..... kalean (auzoan)..... zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Gargantua

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igon bear dogu.
Ez nekeak, ezta bide txarrak
gora, gora Euskalerria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrikoak.

emen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
biotza erreta.
ain ederra, ain polita da ta,
gora, gora Euskalerria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrikoak.

